

Lehen esan bezala, gure iritziz, marketinak edukiko du gastu gehien. Hau da, posterrak egitea, pegatzea, inprimatzea, interneteko web orria sortzea, iragarkiak egitea... Hori guztia, udaletxeak diru nahikoa uzten badigu, noski. Ondoren, materialak erostea izango da gauza garestienetako bat, horien artean, gure proiektuaren ingurua nola egongo den estalita...

Adibidez, goran edukiko duen teilatu antzekoa edo ingurututa egongo den hesiaren materiala. Azkenik, material guztien artean garrantzitsuena eta ezinbestekoena erabiliko dugun lurra izango da.